



2017KO SAN PRUDENTZIO TXAPELKETAREN ARAUDIA AGF-K ANTOLATUTAKO PROBA

PARTE HARTZAILEAK

Parte hartu ahal izango du hurrengo bi baldintza hauek betetzen dituen jokalaria amateur orok: indarrean dagoen federazio lizentzia edukitzea eta handicap zehatza esleiturik izatea.

PARTE HARTZAILEEN KOPURUA

Proba non izango den, bertako klubak ezarriko du parte-hartzaileen kopurua.

KATEGORIAK

Kategoria bakarra.

BARRAK

Gizonezkoak: Horiak

Emakumezkoak: Gorriak

JOKATZEKO MODUA

18 zulo jokatuko dira, modalitatea izango da Fourball Stableford bikoteak.

Gehieneko handicap zehatza:

Gizonezkoak: 26,4

Emakumezkoak:36

IZEN-EMATEAK

Probak antolatzen dituen klubean bertan egingo dira, klubaren araudiei jarraiki.

Prezioak: 17€ Araban federatutakoentzat eta Arabako klubetako bazkideentzat eta abonatuentzat; 40€ Arabatik kanpo federatutakoentzat.

JOKO ARAUAK

Araudi honen arabera jokatuko da eta bertan aurreikusten ez dena arautuko da honakoen arabera: EGEFk argitaratutako eta indarrean dauden Golf Arauak; bertakoak eta gaur egungo EGA Handicap sistema.





IRTETEKO HURRENKERA

Proba non izango den, bertako klubak ezarriko du irteteko hurrenkera.

TROFEOAK ETA SARIAK

Trofeoak irabazle suertatzen diren hiru bikoteentzat, luntxa eta opariak zozketatzea.
(Hiru bikoterik onenak izango dira lehena, bigarrena eta hirugarrena)

BERDINKETA HAUSTEA

Berdinketa izanez gero, nola hautsi ebatziko da Liburu Berdearen II. Kapituluko 6.9 puntuaren c), d) eta e) ataletan xedatutakoaren arabera.

(Arabako Golf Federazioak araudia aldatzeko eskubidea beretzat gordetzen du).

